Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jokin Apalategi Begiristain

Ataun, Gipuzkoa (1943)



Aurkibidea

Biografia



Psikologia sozialeko katedraduna da UPV/EHUn, idazlea eta UEUren UZTARO aldizkariaren zuzendaria izan da 2017. urtera arte.

Zintak

ATA-044

- **Proiektua**: UEU Udako Euskal Unibertsitatea
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Data**: 2018-01-01
- **Iraupena**: 44 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Seminarioan euskaraz hitz egitea debekatuta

- **Erref**: ATA-044/001
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:
Seminarioan ia denak euskaldunak ziren baina euskaraz hitz egiteagatik zigortu egiten zituzten.

2. Ozaetako udalekuak

- **Erref**: ATA-044/002
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:02:22. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Hogeita bi urte zituela, ikastolako udalekuetan lan egiten hasi zen, Ozaetan (Araba). Orduan ikastolak ez ziren oraindik ofizialak eta elizaren arrimoan zeuden.

3. 1968ko maiatza Parisen

- **Erref**: ATA-044/003
- **Iraupena**: 0:03:49. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:08:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
1967an Parisera joan zen airez aldatzeko. Zuzenean Euskal Etxera joan zen eta bertan Euskal Herritik ihes joandako hainbat ezagutu zituen. 1968ko maiatzaren ondorioz, euskal ikasle asko joan ziren Parisera ikastera eta Euskal Etxearen giroa asko indartu zen.

4. Baionako Euskal Aste Kulturalak I

- **Erref**: ATA-044/004
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:08:19. **Bukatu**: 00:09:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:
Gabonetan, Paristik Baionara joaten ziren. 1971-1972 artean Euskal Asteak antolatzen hasi ziren. Parisen euskal errefuxiatu asko zeuden. Piarres Xarriton eta Jean Haritxelhar ziren Euskal Astearen bultzatzaile nagusienak.

5. Baionako Euskal Aste Kulturalak II

- **Erref**: ATA-044/006
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:09:54. **Bukatu**: 00:11:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:
Baionako Euskal Aste Kulturaleko egitaraua. Aspaldian ikusi ez zituzten Hegoalde lagunak ere ikusten zituzten.

6. Oskorri eta Gabriel Arestiren emanaldi eztabaidatsua

- **Erref**: ATA-044/007
- **Iraupena**: 0:04:46. **Hasi**: 00:11:06. **Bukatu**: 00:15:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:
"Saioa" aldizkaria. Oskorri eta Gabriel Arestiren emanaldi eztabaidatsua. Gizartea pil-pilean zegoen.

7. UEUren hastapenak I

- **Erref**: ATA-044/008
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:15:52. **Bukatu**: 00:17:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:
Donibane Lohizunen lehen aldiz antolatu zen Udako Euskal Unibertsitatea 1973an. 1974 Zabal-Elkar liburu-denda zabaldu zuten.

8. UEUren hastapenak II

- **Erref**: ATA-044/009
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:17:40. **Bukatu**: 00:20:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:
Maite Barrenetxek, France 3 kateko euskal kazetaria, lau gazte aukeratu zituen UEU-ko hastapenei buruz hitz egiteko. Grabazioa gero debekatu egin zuten eta ez zen inoiz telebistan eman.

9. UEUren hastapenak III: bilkurak

- **Erref**: ATA-044/010
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:20:02. **Bukatu**: 00:22:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:
Ipar Euskal Herrian, Manex Goienetxe izendatu zuten UEUko urteroko lanen arduradun. Hik Hasi-ren bitartez hasi ziren lanean. Kristiane Etxaluz, Xarles Bidegain, Martin Orbe...

10. Euskal Unibertsitaterik ez, UEU gabe

- **Erref**: ATA-044/011

- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:22:15. **Bukatu**: 00:25:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:
UEU Hego Euskal Herrian nola hasi ziren. Hasieran ikastaroak euskaraz eta gaztelaniaz izaten ziren. Euskal Unibertsitaterik ezin da egin UEU kontuan hartu gabe.

11. UEU-ren borroka

- **Erref**: ATA-044/012
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:25:50. **Bukatu**: 00:28:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:
Euskarari ez zitzaion balorerik ematen goi-mailako ikasketetan. UEU-ren helburua, unibertsitateko ikasketak euskaldunduz euskarari indarra ematea izan da.

12. UZTARO aldizkaria

- **Erref**: ATA-044/013
- **Iraupena**: 0:04:33. **Hasi**: 00:28:27. **Bukatu**: 00:33:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa

Laburpena:
Uztaro aldizkaria sortzeko beharra eta Jokinen parte-hartzea. Giza eta Gizarte-jakintzak batuko zituen aldizkaria lortu nahi zuten.

13. UZTARO aldizkariaren erronkak

- **Erref**: ATA-044/014
- **Iraupena**: 0:03:46. **Hasi**: 00:33:00. **Bukatu**: 00:36:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Prentsa

Laburpena:
Uztaroren belaunaldi berriak askoz formatuagoak zeuden eta aldizkariaren erronkak aldatzen joan ziren eta nazioartekoa bihurtzea nahi zuten. Gaur egungo erronka nagusia, euskarazko lan edo ikerketek, beste hizkuntza ofizialetako lanei ematen zaien garrantzi eta balioa berdina izatea da. Horretarako, Unibertsitatearen lana beharrezkoa da.

14. UEUren Ipar Euskal Herriko helburua

- **Erref**: ATA-044/015
- **Iraupena**: 0:03:58. **Hasi**: 00:36:46. **Bukatu**: 00:40:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:
Ipar Euskal Herrian, unibertsitate euskaldun bat behar da eta UEUk asko lagundu dezake lan horretan.

15. UEU mugimendu sozial handi bat da

- **Erref**: ATA-044/016
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:40:44. **Bukatu**: 00:43:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:
UEU beti eraldatzen dagoen mugimendu sozial handi bat da.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-15

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com